

# Turismoa Plazaola eta Mendialdean

**AMI**Arako ANALISIRAKO EKARPENAK (2021eko irailaren 28ko parte hartze saioan jasotakoak)

**1.GAIA => Plazaola eta mendialdeko turismoa: Partzuergoko eragile publiko eta pribatuak, gobernantza, aliantzak, turismo sektorearen balioak,...**

## Zein da bere eragina? Zein balio sortzen du?

- Eragina handia eta positiboa dauka. Ekonomian eragina badauka, batez ere mugimendu handia dagoen sasoietan.
- Zonalde garrantzitsua da Plazaola, kanpora begira ere bai.
- Baliabide guztiak batzea ekarri du, Bide Berdea baino askoz gehiago da.
- Jende askok ezagutzen du Plazaola ingurua.
- Zonalde oso zabala hartzen du, aukera asko eskaintzen ditu. Natur bideak eta beste aukera batzuk ere badaude.
- Eragileekin beste modu bateko lankidetzak garatzeko aukera badago. Goizuetako adibidea. Bazkide ez izan arren proiektu interesgarri bat egonez gero Plazaolatik bideratu daiteke.
- Koordinazioa badago turismo bulego eta eragileen artean.
- Plazaolan kanpora begira gauza asko egiten dira baina herriek/herritarrek parte sentitzeko zerbait egin beharko litzateke.
- Plazaolaren dagoen eskaintza jasota dago.
- Eremua zabaltzen ari da eta zenbat eta baliabide gehiago orduan eta hobeto.
- Plazaolaren 27 urteko ibilbidea.
- Badago agerikoa den dinamika bat.
- Eragina dauka eta geroz eta gehiago nabaritzen da.
- Plazaolak pisu gehiago izan beharko luke.
- Ekonomian geroz eta inpaktu handiagoa eta 25 urte barri gehiago izango du.

## Zeintzuk dira zailtasunak?

- Posizionamenduari eta marketinari begira hobetzekoak badaude, marka bat sortu, adibidez. Baztanek egin duen bezala.
- Zonalde zabala hartu arren, beste gune batzuetara iristea ere komeni da, aliantzak Gipuzkoarekin esate baterako. Plazaolatik irteteko beharra dago, beste zonalde batzuekin harremanak bideratu, landu.
- Eragileen artean elkar ezagutza handiagoa behar da (governantza eredu berrian sakontzeko gaietako bat). Eragileek aipatu dute, hori esan egiten dela baina kosta ere egiten dela, eremu zabala da, bakoitza bere lanean murgilduta.
- Barrura begira ez da ondo saldu. Udal eta herritarrei begira. Governantza eredu berriaren baitan landu beharreko puntu bat da.
- Udal batzuen pisua, Leitza eta Lekunberri, ekitaldi gehienak bertan egiten dira. Governantzaren ikuspegitik landu egin beharko litzateke. Herri txikiak biztanleak

galtzen ari dira. Zer egin indartzeko? Nola indartu? Nola lortu oreka herri handi eta txikien artean? Galderak planteatzen dira baina erantzunak zailagoak dira.

- Udalek garrantzia handiagoa eman behar diote Plazaolako turismoari, askotan iritsi ezinik. Plazaola eta udalen arteko komunikazioa hobetu behar da.
- Plazaolan kanpora begira gauza asko egiten dira baina herriek/herritarrek parte sentitzeko zerbait egin beharko litzateke.
- Inplikazio lokalik ez.
- Pribatuen artean ez dago konexiorik. Bakoitzak gurea begiratzen dugu.
- Berehalako emaitzak eskatzen dira.
- Turismoaren sektorea ez baloratzea.
- Ez gara jendearengana iristen. Herritarren artean ez oso ezagunak.
- Plazaolak pisu gehiago izan beharko luke, jende gehiago inplikatu beharko litzateke.
- Parte publikoa gehiago inplikatu beharra.
- Elkar ezagutza handiagoa behar da.
- Marka sortzearen beharra (Baztan kanpotik ere ezagutzen dute)
- Ezagutza foroak sortzea, sinergiak, elkar-ezagutzak bideratzeko.

## **2. GAIA => Zonaldearen ezaugarriak: kokapena, irisgarritasuna, mugikortasunerako zerbitzuak, herriak eta biztanleria.**

### **Zein da eragina? Zein balio sortzen du?**

- Goizueta kenduta oso ondo kokatuta (bertakooi urruti bizi garela iruditzen zaigu baina bertara datozenei ez).
- Donostiatik eta Iruñetik gertu egotea balio handia da.
- Udan kanpoko jendea etortzen da eta neguan ere.
- Ura+lurra proiektua eskolako umeekin. Denok formatu behar gara.
- Jendea lasai egotera dator. Lehenik etxea aukeratu eta gero planak.
- 3. Adinekoentzat leku ona

### **Zeintzuk dira zailtasunak?**

- Informazio gune gehiago. Gu beste leku batzuetara joaten garenean zer nahi izaten dugu, gutxienez informazio gune bat.
- Proiektuari osotasuna ematea komeni da.
- Elbarrientzat baliabideak (zonalde asko egokitu gabe).
- Garraio publikoa gabezi handia da.
- Bisitariak egun gutxirako etortzen dira askotan. Egun gehiagotako etortzeko zerbait gehiago egin behar dugu, ibilbideak prestatu, zonaldeko beste gune batzuk ezagutzeko aukera ematea
- Araitzen garraio publikorik ez dago. Taxi sarea sortu da, Udalak subentzionatua. Map&go aplikazioa
- Agenda bateratuaren beharra
- Turistaren lekuan jarri behar gara

### 3. GAIA => Ondarea eta baliabideak: natur ondarea, ondare historiko eta arkitektonikoa, ondare immaterial eta kulturala, ...

#### Zein da eragina? Zein balio sortzen du?

- Jendea inguruan gelditzen da azkenaldian.
- Baliabide asko daude baina ez dira ezagunak.
- Balioan jarri daukaguna.
- Produktu turistiko bat eskaini.
- Formakuntza eduki gure baliabideak ezagutzeko.
- Ura eta lurra proiektua ona da bertako baliabideak bertako jendeari ezagutzeko.
- Bezeroak esperientzia pertsonala-pertsonalizatua eskatzen du.
- Plazaolako informazioa iristen dena bezeroei informatzeko oso ondo etortzen da.
- 1000 plan egin daitezke inguruan eta horrela eskaini bezeroei.
- Klima baliabide bat da
- Lasai egoteko gogoia. Familiak ikasi gai lasai egotea.

Dugun natur ondareak eta inguru ez oso populatua izateak bereziki lasaitasun sententzioa ematen du eta horrek aukera ematen digu turismo ustiapenerako. LASAITASUNA produktu gisa landu behar genuke.

Ondare kultural handia dugu, Plazaola bidean baita ondare industrial handia ere. Erakargarria izan daiteke oso eta oso balio handikoa da (ondare industrial hori batez ere). Peruharri oso eredu ona izan daiteke. Duela 5000 urteko aztarna asko dago, trikuharri eta bestelakoak: haiei ere balioa ematen asmatu behar dugu.

Elikadura ekoizpenaren bueltan: badago eskaintza (ekoizle asko dago zonaldean) eta badago eskaria, bisitari askok eska diezaguke bateko edo besteko produkturen bat. Idiazabal gazten ibilbidea eta gisakoak eskain daitezke.

Aralarren ibilbide asko egin daitezke.

#### Zeintzuk dira zailtasunak?

- Araitzen baliabideak falta dira. Ez dakite non dauden kokatuta.
- Ez dute eremua zaintzen. Hezitzaile bezala jokatu behar da askotan (natura ez da zaintzen).
- Kartelak jarri, heziketa kontua da.
- Araitzen mantentze lanak hobetu.
- Turistei zerbitzu ona ematea.
- Landa-eremuko hezitzaileak izan.
- Bertakoek ere ez ezagutzea bertakoa
- Ez dago eskaintza koordinatu bat (elikagaiak...)
- Bisita koordinatuen falta (errentagarritasun zaila talde txikiekin, teknologiak lagundu dezake?, zuzeneko bisitak, sakonak eskatzen dira...)

LASAITASUNA, aldiz ez da sekula kontzeptu eta produktu gisa gurean landu. Kontzeptu horren bueltako koordinazio eta eskaintza bateratua antolatzea falta zaigu.

Ondare naturala dela eta ez dela, askotan gertatzen zaigu bisitariak galdetzen digutela Urbasa non dagoen, parke naturala baita. Aralar aipatzen diegu, baina Urbasara joan nahi dute, izendapenarengatik. Aztertu behar litzateke Aralar Parke Natural izendatzeak zer onura eta zer kalte ekar diezazkigukeen.

Ondare kulturala ez dugu bertakoek ere baloratzen. Bestalde, ondare arkitektoniko asko itxita egoten dira (elizak eta baselizak).

Peruharri eredu ona bada ere, oso zaila da errepikatzen. Pertsona ezagun batek bere ekimenez, lur eremu zabalean eraikitako inguru eder eta, aldi berean, oso merkea da.

Aralarren ibilbide asko dago, baina oso gutxi daude markatuta.

#### **4. GAIA => Plazaola bide berdea: bizikleta turismoa, turismo aktiboa, zerbitzuak, erabiltzaileak, bidearen mantentze-lanak, ...**

##### **Zein da eragina? Zein balio sortzen du?**

- Ixkier kaskada. Ibilbide laburra baina zoragarria.
- Lekunberritik gertu familientzako.
- Ibilbidea ondo prestatuta dago.
- Mendi bizikletak gora. Elektrikoak ez.
- Familia planak: eguneko plana.
- Gynkana, scape room eta bisita antzeztuak.

##### **Zeintzuk dira zailtasunak?**

- Abuztuan etorri ohi da jende gehiena eta askotan bide-berdean obrak egoten dira.
- Errekan bainu lekuak faltan.
- Koordinazio falta informatzeko.

#### **5. GAIA => Turismo sektorea: zer eskaintzen dugu, zer eskatzen dugu...**

##### **Zein da eragina? Zein balio sortzen du? Zeintzuk dira zailtasunak?**

Bisita gidatuen beharraz aritu gara, gutxi eskaintzen dela eta. Bisita gidatuek turismoa erakar dezakete, baina zalantza eta ideia kontrajarriak sortu zaizkigu:

Natur ingurunean bisita gidatuak “garestiak” dira bisitari askorendako. Mendia oso merkea da, eta, horregatik ere aukeratzen da. Mendi bideetan bisita bategatik 10na euro eskatzea, adibidez, familia askorendako gehiegizkoa da.

Bestalde, bisita gidatuen arazoetako bat bisitari kopurua, edo, bolumena da. Bisitari kopuru txikiarendako oso garestiak bilakatzen dira. Oreka behar da.

Aldiz, bisita gidatu asko antola daitezke: elikadura ekoizpenekin lotuz, ondare kultural eta arkitektonikoarekin lotuz... Aukeretarako pentsatu da zenbait bisita izan daitezkeela audio gida bidez antolatutakoak esaterako (edo teknologia berriak erabilia orokorrean: QR kodeak eta abarrekoak), eta, abuztuan, bisitari gehiago dagoenean, ohiko bisitak antolatu. Hor ere oreka behar da, audio gidak ongi daude, baina zuzenekoak eta pertsonalagoak diren esperientziak ere eskaini behar ditugu.

Bisitari asko “egotera” etortzen da, ez egitera. Ezin zaigu ahaztu. Lehendabizi etxea aukeratzen dute, gustuko etxea, eta, gero, agian, zerbait egiten dute. Etxeak eskaintzen ditugu, lotarako toki ederrak.

Bukatzeko, hirugarren adinekoendako berariaz sortutako eskaintzari buruz hitz egin dugu: ez dugu bereziki ezer antolatuta, eta, interesgarria izan daiteke. Esan dugu oso adin tarte berezia dela: batera eta bestera ibili zaleak dira, baina segurtasuna behar izaten dute, normalean egun osoko mantenua eskaintzen dieten hotelak, teknologia berri gutxiago eta paperean informazio gehiago... Behin probatuta errepikatzen duen jendea izan ohi da. Aztertzekoa.